

# JARDUERA-PLANA

## (22. ASTETIK IKASTURTE AMAIERARA)

### Komunikazioa euskaraz

Industria Elektronikaren eta Automatikaren  
Ingeniaritzako Gradua  
Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren  
Ingeniaritzako Gradua  
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua  
Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua

2020/03/25

Irakasgaiaren koordinatzailea  
Sergio Monforte

## AURKIBIDEA

1. Eduki teoriko-praktikoak
2. Metodologia
3. Ebaluazio-sistemak
4. Ohiko deialdia: orientabideak

# 1. EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

## Egitarau teorikoa

3. GAIA. Terminologia eta fraseologia:

3.4. Hiztegi-sorkuntzarako bidea

3.5. Izen-sintagma espezializatuen egitura

3.6. Aditzen hautapena testu espezializatuetan

4. GAIA. Ahozko eta idatzizko ekoizpena

4.1. Idatzizko testuen ezaugarriak

4.2. Ahozko testuen ezaugarriak

## Egitarau praktikoa

2. GAIA. Terminogintza inguruko ariketak:

2.1. Hitz-eratorpen arloko ariketak

2.2. Hitz-elkarketa arloko ariketak

3. GAIA. Testugintza inguruko ariketak:

3.1. Testu-itzulpenari lotutako ariketak

3.2. Testu-zuzenketa eta hobekuntzari lotutako ariketak

# 2. METODOLOGIA

Ikasgaien etengabe lotuko dira teoria eta praktika. Teoria-saioak Blackboard Collaborate programaren bidez eskaini eta grabatu ondoren eGelan eskegiko dira. Horrelakoetan teoria jorratzeaz gain, praktikakoetan landuko diren gaiak ere ekingo zaie aurkeztuz eta adibidetuz. Praktika-saioak eGelaren bidez bideratuko dira, plataformak eskaintzen dituen baliabideak erabiliz. Moodle (eGela) plataforma erabiliko da irakasgaiak antolatzen eta komunikazioa errazteko (ikasle bakoitzaren zeregina da plataformarako sarrera duela ziurtatzea).

## 2.1. IKASGELAKO KLASE MAGISTRALAK ETA PRAKTIKOAK

Eskolek astelehenetako eta asteazkenetako ordutegia mantenduko dute. Eskola bakoitzak zati bi edukikoditu: lehenengo zatian teoria-saioa egiten da Blackboard Collaborate programaren bidez; bigarren zatian alderdi praktikoa lantzea proposatzen zaio ikasleari teoriarekin lotutako ariketen bidez (bai eGelak ematen dituen aukerak erabiliz edo pdf/word dokumentuak bidaliz) eta ebaluazio jarraitua egin behar diren jarduerak ere aurkeztuko zaizkio, zer/noizko/zelan egin behar duen azaltzen zaio alegia.

## 2.2. MINTEGIAK

Eskola honetan ez dago mintegirik.

## 2.3. LABORATEGIKO PRAKTIKAK ETA ORDENAGAILUKO PRAKTIKAK

Eskola honetan ez dago laborategiko praktikorik. Ordenagailuko praktikei dagokienez, teoria-saioak dagoeneko burutu dira eta ikasleek egiteko dituzten praktika-saioak ikasgelaz kanpoko ariketen bidez landuko dituzte, aurreikusita zegoen bezala.

## 3. EBALUAZIO-SISTEMAK

Ebaluazio jarraitua egiten dutenek lauhilabetearen hasieran adostu ziren jarduerak egin beharko dituzte: a) eskola bakoitzeko ariketak (%20); b) testugintza-ariketa luzeak (%10); c) teoria-ariketa luzeak (%50); d) ahozko aurkezpena edota artikulugintza saioa (%20). Ahozko aurkezpena Blackboard Collaborate edo Skype programaren bidez egingo da.

Ebaluazio ez-jarraitua egiten dutenek eGelako galdetegia (%50), artikulugintza saioa (%25) eta ahozko aurkezpena (%25) edukiko dituzte ebaluazio-sistema. Ebaluazio mota horretan bai eduki teorikoak, bai eduki praktikokoak bereganatu dituela eskatuko zaio ikasleari. Beraz, eGelako galdetegian galdera teorikoak eta praktikokoak egongo dira (erantzun laburrekoak, egia/faltsua motatakoak eta aukera askotatakoak). Artikulugintza saioa eta ahozko aurkezpena erabat lotuta egongo dira: ikasleari aldeztu aurretik testu tekniko bat sortzea eta Blackboard Collaborate edo Skype programaren bidez aurkeztea eskatuko zaio.

## 4. OHIKO ETA EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTABIDEAK

Ebaluazio jarraitua egiten ez dutenek ebaluazio soila egingo dute, aurreikusita zegoen bezala.

Irakasgaiaren ebaluazioa jarraitua izango da. Ebaluazio jarraituak eskatzen du saio guztietara bertaratzea eta zeregin guztiak garaiz entregatzea. Ebaluazio jarraitua gainditzen ez duten ikasleek, ebaluazio jarraitua egiten hasi eta alde batera uztea erabakitzen duten ikasleek edo hasieratik bukaerako azterketaren bidez bakarrik ebaluatuak izatea aukeratzen duten ikasleek, bukaerako azterketa egiteko eskubidea dute (puntuazioaren %100). Eskubide hori gauzatu ahal izateko, ikasleak ebaluazio jarraituari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat helarazi behar dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari, lauhilekoaren hasierako 9 asteen barruan (16-24 asteetan). Halako idatzirik bidali ezean, ebaluazio jarraiturako aurkeztutako zereginak kalifikatuko dira.

### 1 Ebaluazio jarraitua

A) Gelako ariketak: eskolan bertan egindakoak eta irakasleari entregatutakoak, %80 nahitaezkoa (%30). Gai teorikoen ezagutza ebaluatuko da.

B) Aurkezpena (taldeko lana): gai teorikoetan ikusitako gai baten ikerketa-lana, nahitaezkoa (%20). Hausnarketa eta ahoskera ebaluatuko da.

C) Idazlana (testu-mota aukeran, gaia titulazioarekin edo ikasgaiarekin zerikusia duena) bakarka, nahitaezkoa (%30). Idazteko gaitasunaz eta zuzentasunaz gain, eta ikasitako baliabideen erabilera ebaluatuko da.

D) Aukera anitzeko testa, e-gelan azterketa egunerako, nahitaezkoa (%20). Arauen ezagutza ebaluatuko da.

### 2 Ebaluazio ez-jarraitua

A) Eskoletara etorri ez denak, ebaluazio jarraituaren gutxieneko baldintzak bete ez dituenak, edo aurreko puntuan adierazi bezala ebaluazio jarraituari uko egin dionak azterketa baten bidez ebaluatuko zaio.

B) Zentroak erabakitako egun eta orduan izango da azterketa, **eGelaren bidez**.

C) Irakasgaiaren nota azterketan lortutakoa izango da.

D) Bukaerako azterketa (% 100):

- Irakasgaiaren landutako gaiei buruzko galderak nahiz testa eta ariketak: %50.

- Zehaztutako gai bati buruzko edo emandako artikuluko bati buruzko idazlana eta aurkezpena: %50.

Ebaluazio ezohikoa aurrez aurre egingo da, egoerak hala ahalbidetuz gero; bestela, ohiko deialdiko ebaluazio ez-jarraituaren irizpideak erabiliko dira ikasleak ebaluatzeko.